

EGUNEKO AHOLKUA

EGUNEKO BEDERATZIGARREN AHOLKUA: UR BEROAN AURREZTEKO AHOLKUAK

Ur beroak, etxe batek kontsumo energetikoaren laurdena suposatzen du. Berotze-sistema eta gero, energia gehien kontsumitzen duena da.

Ur beroaren tenperatura galdaran erregulatu

Galdarak ekoizten duen ur beroaren tenperatura erregulatu badaiteke, ondo zehaztu, ur hotzarekin nahastu behar ez izateko.

Bainuaren orde, dutxa aukeratu

Dutxatzeak kontsumitzen duen ur kantitatea, bainatzeak kontsumitzen duenaren laurdena suposa dezake: bainera betzeko 200 litro ur inguru behar dira. 5 minutuko dutxa batek ordea 50 litro inguru kontsumitzen ditu.

Dutxan txorrota egokia instalatu

Betiko dutxako txorrotek minutuko 12-15 litro kontsumitzen dituzten bitartean, dutxako txorrota eraginkorrek 6-7 litro bitartean kontsumitzen dituzte minutuko. Instalazioa oso erreza da; zaharra askatu eta berria jarri.

Dutxa denbora kontrolatu

Erraza da dutxaren azpian denboraren nozioa galtzea. Aparatu sinple eta merkeak daude, adibidez area erloju murgilgarriak, zeinek 4 edo 5 minutu pasa direla jakinarazten diguten.

Konketako txorrota, hobe hotzean irekitzen dena

Mando bakarreko txorrota gehienetan, palanka erdiko posizioan uzten denean, ur hotz eta beroaren nahasketa bat lortzen da. Txorrota posizio horretan denbora laburrez irekitzen bada (oso ohikoa dena) ur beroa ez da konketara heltzen. Ur beroaren gastu hau ekidin daiteke hotzean irekitzen diren mando bakarreko konketak aukeratuz. Modelo hauetan, erdiko posizioa ur hotzerako dago eskainia. Ur beroa lortzeko, mandoa ezkerrera biratu behar da.

Eskuz garbitzen badituzu ontziak... erabili tapoia

Plateren eskuzko garbiketa ur gutxirekin egin daiteke "teknika" erraz batzuk erabilia: txorrota itxi platerak xaboiu bitartean, eta harraskako tapoia jarri platerak xaboiu eta uretan eragin bitartean.

Ur-ihesak eta jarioak ekidin

Ura aurrezteko, ur beroa ez bada ere, energia aurrezten da, izan ere, orokorrean ura txorrotara bultzatzeko bonba elektrikoak erabiltzen dira.

Konketaren txorrota, hobeto hotzean irekitzen bada

Txorrota monomando gehienetan, palanka erdiko posizioan uzten denean ur beroaren eta ur hotzaren nahasketa lortzen da. Txorrota posizio horretan denbora gutxian irekitzen bada (oso ohikoa dena) ur beroa ez da komunera ere iristen. Ur beroaren alferrikako gastu hori hotzean irekitzen diren monomandoak aukeratuz prebenitu daiteke. Modelo hauetan, agintearen erdiko posizioa ur hotzarentzat erreserbatzen da. Ur beroa lortzeko, agintea ezkerrera biratu behar da.

Eskuz platerak garbituz gero, erabili tapoia

Platerak eskuz garbitzea ur gutxirekin egin daiteke, "Teknika" simple batzuk erabiliz gero: txorrota ixtea platerak xaboitzen ditugun bitartean, harraskaren tapoia erabiliz, bai garbiketan, bai xaboia kentzean.

Saihestu ihesak eta tanta jarioak

Ura aurreztea, beroa ez bada ere, energia aurreztea ere bada, ura ponpa elektrikoek bidez bultzatu ohi baita gure txorrotetara

Iturria: Atari Consultora Sostenible; CENEAM; IDAE